

# Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan

Xabier Artiagoitia  
EHUko irakaslea eta UEUko kidea

Artikulu honek Abneyk (1987) gramatika sortzailearen barruan zabal-  
dutako *Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia* (DSH) euskal gramatikan nola  
gauzatzen den azaltzen du. Hipotesi horrek, funtsean, "izen-sintagma"  
delakoaren ardatza determinatzailea dela dio. Egileak izen-sintagmaren ohiko  
ikuspegiaren arazoak azaldu ondoren, euskarara egokitzen ditu Abneyk  
emandako argudioak. Arreta berezia eskaintzen dio pertsona-izenordainak  
D(determinatzaile) kategoriakoak direla erakusteari. Azkenik, mendebaleko  
euskaran aurkitzen diren determinatzaile bikoitzeko egiturez hainbat ohar  
ematen ditu.

This article justifies Abney's *Determiner Phrase Hypothesis* from a point of view  
internal to Basque grammar. The author reviews Abney's original arguments and adapts  
them to Basque. Special attention is given to show that personal pronouns behave  
syntactically as Determiners. Finally, the author proposes that noun phrases headed by two  
determiners (a construction found in Western Basque) should be analyzed in the light of the  
DP Hypothesis.

## Sarrera\*

Hamaika urte inguru igaro dira N. Chomskyk sustatzen duen eta gramatika sortzailearen tradizioan txertatzen den *Hatsarreak eta Parametroak* gramatika ikermoldearen barruan Steve Abney hizkuntzalariak bere doktorego-tesi garrantzitsua burutu zuenetik eta, gaur egun euskalari gehienok bertan izen-sintagmaren egituraz esan eta proposatutakoak eguneroko praktikan aintzat hartzen baditugu ere, gutxi izan dira euskal izen-sintagma Abneyren proposamen horien arabera aztertu duten ikerlanak; azpimarratzekoa da basamortu honetan Eguzkitzak (1993) argitara emandako artikulu jakingarria<sup>1</sup>. Zedarria euskaraz idatzitako ikerlanetan ipintzen badugu, argi baino argiago geratzen da ez dagoela honetaz diharduen lan monografiko sakonik. Artikulu honek premiazko hutsune hori bete nahi luke, eta modu nahiko apalean bete gainera: Abneyren hipotesi “unibertsala” deituko genukeen hori, *Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia* alegia, euskararen beraren gramatikatik azaltzera eta justifikatzera mugatuko naiz, bide batez denok dakizkigunak argi berriarekin aurkeztu nahian. Hizkuntzalaritzan trebatutako irakurleak ez du, hortaz, ikerketazko berri handiegirik aurkituko hemen, tradizionalki *izen-sintagma deritzonaren ardatza edo burua izena barik determinatzailea bera delako hipotesiaren alde* han-hemenka, euskal gramatikaren barruan, aurkitu uste izan ditudan argudioen aurkezpena baizik. Alde horretatik, artikulu hau, goi-mailako ikerketa baino gehiago, goi-mailako ikerketaren zabalkundea izatea nahi nuke.

Artikulua honela egituratu dut: lehen atalean izen-sintagmaren ohiko analisia berrikusiko dut gaia kokatu eta dauden arazoak aurkezteko. Bigarren, Abneyren *Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia* (DSH aurrerantzean) ekarriko dut gogora, berak ingelesetik abiatuta proposatu zuena erakutsiaz. Ondoren, DSHren egokitasunaren alde egiteko euskal gramatikan zeintzuk argudio dauden azalduko dut. Laugarren atalean, eta hirugarren atalaren osagarri, pertsona-izenordainei euren tarte berezia eskainiko diet eta berauek D(eterminatzaile) kategoriakoak direla esateko dauden arrazoiak aipatuko<sup>2</sup>. Azkenik, azal-azaletik baino ez bada ere, mendebaleko zenbait egituraren eta DSHren arteko loturari buruzko zenbait ohar ere egingo ditut.

Irakurlea ez nahasteko, argibide hauexek eduki behar dira gogoan: letra xeheko *izen-sintagma* deitura, tradizionalki “Jon, nire herriko neskatxa maitea, bertsolari hori” bezalako perpauis zatietarako erabiliko dut artikuluan zehar, eta neutralitatezko deitura izango da beraz; Izen Sintagma (IS) deitura, berriz, Abneyren proposamenaren arabera erabiliko dut, eta (gutxi gorabehera) zenbait tradizioan Izen Multzoa deiturikoari (= IM, cf. Goenaga 1980, 1991 eta Trask 1983) dagokio.

---

\* Lan hau Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako HU-1997-14 ikerketa-proiektuaren barruan burutu da. Zorretan nago A. Eguzkitza, R. Gomez, I. Laka, B. Oyharçabal eta K. Zuazorekin, egin dizkidaten ohar eta iruzkinengatik. Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, G. Aurrekoetxea, X. Bilbao, eta G. Elordietari datu batzuk argitzen lagundu izanagatik. Lagun hauek guztiok ez dira, edozein kasutan, hemen leudekeen hutsuneen erantzule.

1. Eta Artiagoitia (1997a) ere bai, baina berau predikatuen azterketara mugatzen da. Zeharkako aipamenak badira Laka (1993) ikerlan bikainean ere, baina bertako helburua Kasu Teoria aztertzea da.

2. Honako laburdurak erabiliko dira artikuluan zehar: EGLA = Euskaltzaindia (1993), EGLU-IV = Euskaltzaindia (1994), XS = X-sintagma, A = aditza, Adj = adjektiboa, ABS = absolutiboa, D = determinatzailea, E = ergatiboa, I = izena, INF = inflexioa, KONP = konplementatzailea, P = preposizioa, Po = posposizioa, Zenb = zenbatzailea, sg = singularra, pl = plurala.

# 1. Izen-sintagmaren ohiko azterbidea

## 1.1. X' Teoria eta izen-sintagma

Gramatika sortzailearen tradizioan, izenaren inguruan eta izena buru eta ardatz delarik sortzen den egitura-multzoari izen-sintagma deitu izan zaio. Hara:

- (1) {Zer/Nor} aurkitu duzu kalean?  
(2) a. Txanpon bat  
b. Aspaldiko laguna  
c. Liburu zaharrak  
d. Nelson Mandela  
e. euskaltegiko ikasleak  
f. askatasun pixka bat  
g. Jonen alaba nagusia eta txikiena

(2)-ko perpaus-zatiek tartean izenen bat edo beste (*txanpon, lagun, liburu, N. Mandela, ikasle, alaba, pixka...*) agertzen dute guztiek, eta galdera baten erantzuna izateak sintagma estatusa emango lieke (cf. Radford 1988).

Izenaren inguruan sorturiko sintagma hauen barne egiturari dagokionez, gramatika sortzailearen tradizioan X' Eskema deitzen den hipotesia erabiltzen da edo erabili izan da orainsu arte (cf. Chomsky 1994, 1995: 4.atala) barne egitura horren berri emateko. Lan honen helburuetarako, nahikoa dugu X' Eskemaren hipotesia zuzentzat hartzea. Hipotesi horrek dio: (a) batetik, buru edo ardatz batek bere osagarriarekin (holakorik badu behintzat) sintagma izatera heltzen ez den baina burua bera baino zabalagoa den tarteko osagai bat, multzo bat osatzen duela; eta (b) buruak islatzen edo hedatzen duen tarteko osagai horrek eta buruaren espezifikatzaile denak sintagma osatzen dutela. Eskema baten bidez:

- (3) a. X' → X + osagarria  
b. X'' → X' + espezifikatzailea  
(hurrenkera, printzipioz, edozein delarik hizkuntzarik hizkuntza)

Galdera eta kezka asko sor litezke (3) ikustean, baina oraingoz alderdi gutxi batzuk aipatuko ditut. Esaterako: (3)-ko eskemaren arabera hiru maila edo daude sintagmatzat jotzen ditugun perpaus zatietan (*burua/X - tarteko islapena/X' - sintagma/X'' edo XS*) baina, hala ere, argi aitortzen da elementu bakarraren arabera eraikitzen dela perpaus-egitura<sup>3</sup>, hots: sintagmak endozentrikoak dira! Areago: X ipini dugunez gero, ulertu behar da ardatz edo buru guztietarako balio duen eskema dela (3)-koa. Horixe izan zen Chomskyren 1970eko lanaren (eta geroagoko Jackendoff (1977)<sup>4</sup> libururuaren) hasierako asmoa: burua kategoria nagusietariko edozein delarik ere –adjektibo<sup>5</sup>, aditz, izen zein preposizio–, gizakiok (ingelesaz eta) hizkuntza guztietan eraikuntza-sistema berdina erabiltzen dugula defendatzea. Hona ingelesezko adibide zenbait:

3. X' tarteko osagaia sintagmaren eraketaren ikuspegitik justifikatzen da normalean, baina gramatika arauak X eta X'' osagaiekin jokatzeko dute, horiek baino ez ditu "ikusten". Cf. Chomsky 1995.

4. Jackendoff-ek X'' maila ere proposatu zuen, aipaturiko X, X' eta X''-ez gain.

5. Adjektibo hemen Euskaltzaindiak *izenondo* bataiatzen duena izendatzeko darabilt. *Izenlagun* deitzen dituen horiek, berriz, [izen-sintagma + (beste hizkuntzetako *preposizioen* ordezkotako diren) (-ko/-en) deklinabide atziki] eskemari jarraitzen diotenez, Posposizio-Sintagmak izendatuko ditut (egokiago nire ustez). Ez dira falta -en posposizioa kasu marka soiltzat hartzeko arazoak ere (cf. Eguzkitza 1993), baina ez da nire asmoa gai hau argitzea.

- (4)
- a. John is [very indulgent to Mary]  
'Jon Mirenekin oso bihozbera da'
  - b. John [will refuse the offer]  
'Jonek eskaintzari uko egingo dio'
  - c. [John's refusal of the offer]  
'Jonek eskaintzari uko egitea'
  - d. [right after the party]  
'jaia amaitu eta berehala'


*Indulgent* adjektiboak [to Mary] hartuko luke osagarri eta harekin Adj' osatu; horrek eta *very* graduatzaileak AdjS osatuko lukete. Orobat aditzari dagokionez: garai hartan (1970ean), Chomskyk aditzaren espezifikatzailetzat jo zuen aditz laguntzailea edo inflexioa. (4c)-ko adibideari dagokionez, eta aditz sintagmarekiko paralelismoa gordez, [of the offer] hartu beharko genuke *refusal* aditzaren osagarritzat, eta *John's* izenaren espezifikatzailetzat. Antzera aztertuko litzateke (4d) preposizio sintagma.

Zer esan buruaren inguruan ageri diren bestelako modifikatzaileez? Eskuarki, sintagmaren buruarekin erlazio semantiko esturik ez duten modifikatzaile horiek eta buruaren islapen den sintagma "agortzen" ez duten modifikatzaile horiek, X' edo X" osagaiei atxikita baleude bezala aztertu izan dira, berez buruak sortzen dituen osagaiak ixteko gaitasunik ez balute bezala (besteak beste, errepikatze aukera dutelako). Aurreko eskema osatuz:

- (5)
- a. X' → X + osagarria
  - b. X" → X' + espezifikatzailea
  - c1. X" → X" + adjunktua
  - c2. X' → X' + adjunktua

Gatozen izen-sintagma aztertzeraz. Ingelesaren kasuan, argi izan dute ikerlariek perpausaren eitea duten izen-sintagmetan zer den osagarria, eta zer espezifikatzailea:

(6)



Chomskyk, 1970 urteko artikulu hartan, gaineratu zuen izenaren espezifikatzailetzat determinatzaileak-eta (hots artikulua, erakusleak eta beste) jo zitezkeela. Ez harrigarriro, horiek banaketa osagarrian daude ingelesez posesiboekin:

- (7)
- a. \*John's the refusal of the offer
  - b. John's refusal of the offer
  - c. The refusal of the offer

Bateraezintasun hori, noski, determinatzaileak eta posesiboak, elkarrekin lehian, gune bera aldi berean ezin betetzeagatik azaldu izan da<sup>6</sup>. Izen-sintagmaren barruan joan ohi diren adjektiboek dagokienez, adjektibok eskuarki izenaren adjunktutat edo bigarren modifikatzailetzat jotzen dira, besteak beste, osagarriak eta espezifikatzaileak ez bezala, sintagma beraren barruan behin baino gehiagotan ager daitezkeelako izenarekin lotura estuegia izan gabe:

- (8) a *tall dark handsome* stranger  
'Atzerritar garai beltzaran dotorea'  
Radford (1988: 210)

## 1.2. Euskarazko izen-sintagma eta ohiko analisiaren arazoak

Euskarari dagokionez, Patxi Goenaga (1991) izan da, nik dakidala, izen-sintagma X' Eskemaren ikuspegitik sakonen aztertu duena<sup>7</sup>. Ez ditut orain hemen haren ekarpen guztiak banan-banan errepikatuko; nahikoa dugu gogoratzea, Goenagak berak agerian ipintzen duenez, ez dagoela problemarik perpausen antzekoak diren izen-sintagmetan (aditz batetik eratorritako gertaera-izenetan) izenaren osagarri den sintagma aurkitzeko:

- (9) a. Pinocheten herriaren zapalketa (Goenaga 1991: 857tik moldatua)  
b. GAL taldearen S. Mareyren bahiketa  
c. Maskaradaren "Postaria eta Neruda" obraren antzezpena

Hor, normalean, *herriaren*, *S. Mareyren* eta "*Postaria eta Neruda*" obraren hartuko genituzke *zapalketa*, *bahiketa* eta *antzezpen* izenen osagarritzat, hurrenez hurren. Ez dago arazorik adjektiboak eta zenbait posposizio-sintagma izenaren adjunktutat hartzeko ere:

- (10) a. Gizon [zaha] [argal] [ilegorr]-a  
b. [Garaziko] [hogeita bat urteko] emakumezkoak

Baina, ingelesez ez bezala, ezin esan dezakegu (9b)-n *bahiketa* izenaren subjektutat-edo hartzen den [GAL taldearen] posposizio-sintagma hori izenaren espezifikatzaile omen den determinatzailearekin batera ezin denik agertu; oro har, eta EGLAren terminologia erabiltzearen, edozein *jabetza-genitibo* (dela sare tematikoa duen izen baten subjektua edo objektua, dela benetako posesiboa) determinatzailearekin batera egon daiteke euskaraz<sup>8</sup>:

- (11) a. GAL taldearen S. Mareyren bahiketa hori  
b. Bonaparteren euskalkien sailkapena  
c. Jonen auto berria  
d. Jonen begi zoli horiek  
e. Iksleen protesta-idatzia  
f. hizkuntz plangintzaren auzi hau

6. Ikus Longobardi (1996) azterbide berriago baterako.

7. Ezin dira ahaztu Trasken (1983) eta Eguzkitzaren (1991) artikulua ere.

8. Eta ez bakarrik euskaraz; berdin gertatzen da gaztelaniaz, frantsesez, italieraz, hungarieraz... Cf. Longobardi 1994, Szabolsci 1987.

Lehen bi adibideak [= (11a-b)] gertaera-izenei edo sare tematikoa duten izenei dagozkie, eta besteak posesibo arruntei, baina emaitza antzekoa da: izen-sintagma “ixten” duten eta Determinatzaile kategoriakotzat jotzen diren artikulua eta erakusleekin batera ager daitezke bai gertaera-izen baten subjektua (cf. 11a-b) bai jabetza-genitibo arrunta (cf. 11c-f)<sup>9</sup>, berauetariko bakoitzak izen-sintagmaren barruan bakarra izan behar badu ere<sup>10</sup>. Honek iradokitzen du *jabetza-genitiboak* (benetako posesiboak zein subjektuak edo objektuak) ez duela betetzen euskaraz determinatzaileak betetzen duen gune bera izen-sintagmaren barruan.

Arazoak ez dira hor bukatzen baina. Izen-sintagmaren espezifikatzailea omen den determinatzailea izenaren eskuinetara ageri da euskaraz. Gramatika sortzailearen tradizioan, espezifikatzaileak sintagma sortzen dituzten klase itxiztat (hots, kopuru mugatuko elementu jakin batzuek osatutako talde itxiztat) jo izan badira ere, 80. hamarkadaren lehen erdiaz gero (ik. Stowell 1981, Chomsky 1986) bestelako ikuspegia finkatu da: espezifikatzaileak sintagma oso batek betetzen duen gune sintaktikotzat jotzearena hain zuzen. Gauzak horrela, Chomskyk (1986), Stowell, eta Koopman eta besteren lanen ekarriez baliatuz, ohiko kategoria lexikoez gain *Inflexioa* eta *Konplementatzailea* bezalako funtzio-kategoriak proposatu dituenean, espezifikatzailetzat jotzen diren sintagma eskuarki (eta unibertalsalki ere) sintagmen ezkerretara ageri direla egiaztatu da:

- (12) a. Jonek hitz egin du  
 a'. [<sub>InfS</sub> [Jonek] [<sub>Inf'</sub> hitz egin [<sub>Inf</sub> du]]]  
 b. Ez dakigu zergatik Jonek hitz egin duen  
 b'. Ez dakigu [<sub>KonpS</sub> [zergatik] [<sub>Konp'</sub> Jonek hitz egin du [<sub>Konp</sub> -en]]]  
 c. Jon {oso, guztiz, zeharo} lasai dago  
 c'. Jon [<sub>AdjS</sub> {oso, guztiz, zeharo} [<sub>Adj'</sub> lasai]] dago

Hots: behin perpausak INF (Goenagaren (1980) *Gramatika Bideetan*-eko LAG) kategoriako sintagmatzat joz gero, *Jonek* izen-sintagma kontatuko luke Inflexio-Sintagmaren espezifikatzailetzat; menderagailua edo konplementatzailea duten mendeko perpausak menderagailu horren sintagmatzat joz gero, galdetzaileak jo izan dira beronen espezifikatzailetzat; azkenik, adjektiboaren graduatzaileak hartu izan dira adjektiboaren espezifikatzailetzat. Baina, denetan ageri denez, buru baten espezifikatzaile litzatekeen sintagma, buru horren ezkerretara ageri da, bai unibertalsalki eta bai euskaraz ere. Hortaz, euskal izen-sintagmara itzuliaz, horra hor bigarren arazoa: determinatzaileak baldin badira izenaren espezifikatzaile, asimetria susmagarria legoke sintagmen artean, izen-sintagma bakarra litzatekeelako espezifikatzailea eskuinetara duena.

9. Barka biezait irakurleak jabetza-genitiboaren sinplifikazio hau, baina EGLaren deitura bera da engainagarri, eta ez Euskaltzaindiaren erruz. Alde batetik, aditzena bezalako sare tematikoa duten izenak (subjektua/objektua dutenak), eta bestetik izen arruntak (baina posesiboa dutenak) bereizi nahi ditut, modu nahiko eskematikoan. Azken posesibo hauek duten interpretazioari *Lekutasun Posesiboa* deitu ohi zaito Gruber-i jarraituz, baina (11c-f) adibideek erakusten dutenez, *Lekutasun Posesiboaren* beraren interpretazioa askotarikoa izan daiteke: jabetza bera, posesio alienaezina, autoretza, lotura hutsa... Honetaz eta izenen sailkapenez ikus Anderson (1983), Grimshaw (1990: 3. atala) eta Lorenzo eta Longa (1996: 82-hh), besteak beste.

10. Ikus aurreko oharra. Benetako posesiboetan, *Jonen auto berria* bezalakoetan alegia, ez dago *\*Jonen Mirenen auto berria* esaterik. *Jonen anaiaren auto berria* eta horrelakoetan, berriz, argi dago *Jonen* eta *anaiaren* posposizio-sintagmek ez dutela aldi berean *auto* modifikatzen, ez bada *Jonen-ek ania* eta *Jonen anaiaren-ek autoa*. Hau da: autoa *Jonen anaiarena* da, eta *Jonena* den anaiatz ari gara.

Arazoak, hala ere, ugariago dira eta ez dira teoria barruko auzi-mauzietara ere mugatzen. Badago denok ulertzeko moduko beste arrazoi bat izen-sintagmaren ohiko analisia zuzena ez dela pentsatzeko. Alegia: EGLA (1993) liburuan, esaten zaigu (13)-n kako artean daudenak izen-sintagmak direla, zenbait kasutan ageriko izenik ez dagoen arren:

- (13) a. [Andoni] etorri da  
b. [bost gizon] etorri dira  
c. [gure Andoni hori] etorri da  
d. [Euskadiko bost gizon txiki] etorri dira  
e. [hori] etorri da  
f. [bost txiki] etorri dira  
EGLA: 35-36

Euskaltzaindiaren ikuspegi didaktikoa erabat justifikatuta dagoela onartuta ere (argi dago izen-sintagma batean beti ere esangurazko ardatza izena dela), ikus ditzagun gauzak ikuspegi formal hutsetik eta onar dezagun (13a-f) adibideetan benetako izen-sintagmak ditugula. Izen bereziaren kasu *berezia* momentuz alde batera utzita<sup>11</sup>, hauxe aurkitzen dugu: (13b-f) adibideetan elementu komuna ez da izenen bat edo beste agertzea, EGLAk berak “determinatzaile” deitzen duen (zenbatzaile edo mugatzaile) elementuren bat agertzea baizik. Hau da, izenik egon edo ez, badirudi izen-sintagma batez hitz egin dezakegula zenbatzaile bat edo mugatzaile bat dagoen neurrian. Eta, aldi berean, beste honetaz konturatu beharrean gaude: izena egoteak ez duela bermatzen izen-sintagma gramatikala izatea. Ikus:

- (14) a. \* Gizon ikusi dugu / ditugu  
b. Gizon {-a, hau, bat, asko, batzuk, ...} ikusi dugu/ditugu

Hartara, gure buruak sinestarazi nahi digunaren kontra, *izen-sintagma* deitu izan dugun horretan izenak berak ez du beti gramatikaltasuna ziurtatzen, izen arruntei gagozkiela behintzat. Hirugarren arrazoi bat, beraz, izen-sintagmaren ohiko analisia zalantzan ipintzeko.

Puntu honetan, argibide bat eman beharra dago: “determinatzaile” deitzen ditu Euskaltzaindiak zenbatzaileak eta mugatzaileak, eta horretarako arrazoiak oraintxe ikusi ditugu: biek dute izen-sintagmak gramatikal bihurtzeko gaitasuna. Hala ere, hemen, beste hainbat hizkuntzatan bezala, ez ditugu kategoria berekotzat joko, eta zenbatzaile eta determinatzaile kategoriak bereiziko ditugu<sup>12</sup>. Zergatik? Ba, banaketaren aldetik, ezberdinak direlako bata eta bestea eta, izen-sintagmaren barruan, batera ager daitezkeelako testuinguru egokian:

- (15) a. Hiru lagunak jatorrak ziren oso  
b. Gol aukera gutxi *hauek* baliatzen jakin du Alavesek  
c. *Zein* hiru lagun ikusi dituzu mendian?  
d. Langile afrikarrek ez dute diru nahikorik irabazten

11. 4. atalean itzuliko naiz izen bereziak aztertzeraz.

12. Zenbatzaileak eta mugatzaileak “determinatzaile” kategoriaren azpian biltzeak (*Gramatika Bideetan* gogoangarrian bezala) funtsean ohiko analisiak duen beste arazo bat ostentzen du: banaketa osagarrian ez egoteaz aparte, zenbatzaileen berri emateko beharrezkoa da ezkererako mugida edo “predeterminatzaile” azpisail berria proposatzea (cf. Goenaga 1980). DSH onartuz eta zenbatzaileak/determinatzaileak banatuz, gauzak ez ditugu erabat konpontzen (ikus 3.3 azpiatala), baina badirudi arazoa bere benetako terminoetan formulatu ahal dugula.

Hortaz, determinatzaile kategoriaz ariko garenean, mugatzaileak (erakusleak eta artikuluak), partitiboa, *batzuk* eta, agian, zenbait determinatzaile zehaztugabe (*zein, ze(r),* eta *edozein*)<sup>13</sup> ere izango ditut gogoan. Argibide honen ostean, gatozen orain Abneyren proposamenaren berri ematera.

## 2. Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Abneyren argitan


Postal (1969), Brame (1982) eta Fukui eta Speas (1986) aurreko lanak ahaztu gabe, Abney (1987) hizkuntzalariak bereganatu zuen *Hatsarreak eta Parametroak* ikermoldearen barruan ohiko izen-sintagmaren burua determinatzailea bera delako hipotesia aurkeztu izanaren ospea. Abneyk, bere hipotesia aurkeztean, ez zituen gogoan eduki euskarak sortzen zituen arazoak, ingelesak eta beste zenbait hizkuntzak sortutakoak baizik. Ingelesaren beraren gramatika zeuden deskribapen arazoetatik abiatuta eta perpausen eta izen-sintagmen arteko eraketan oinarrituta haizatu zuen Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia.

Erabili zituen argudioen artean hauexek aipa litezke:

1. Hainbat hizkuntzak (Alaskako Yup'ik, Mexikoko Maiera, Hungariera, Turkiera) badute izen-sintagmaren barruan aditzarekin batera agertu ohi den Inflexio kategoriaren antzeko zerbait. Erreparatu Yup'ik-eko adibide hauei:

- (16) a. angute-m kiputa-a-0  
           gizona-E erosi-3ABS-1E  
           “Gizonak erosi zuen”  
       b. angute-m kuiga-0  
           gizona-E ibaia-1E  
           “Gizonaren ibaia”

Bertan, aditzarekin komunztadura egiten duen izen-sintagma eta izen-sintagma barruan posesibo legez agertzen den izen-sintagma marka berdina dute. Aditzarekin batera joan ohi den eta Inflexioaren antzekoa den izen-sintagma barruko komunztadura elementu hori D gunean dagoela suposatuz gero, erraz azaldu ahalko dugu dagoen komunztadura-erlazioa:



Hau da, Determinatzaile buruaren eta posesiboaren artean dagoen komunztadura-erlazioa aditz inflexioaren (INF kategoriaren) eta perpausaren subjektuaren artean

13. *Zein, ze(r),* eta *edozein* D kategoriakotzat jotzeko behin-behineko arrazoi bakarra zenbatzaileekin batera agertzeko gaitasuna da (cf. 15c). B. Oyharçabalek (k. i.) diostanez, azken hiru hauen kategoria baliteke D ez izatea, besteak beste, euren kokapenagatik (izenaren ezkerretara); Iparraldeko hitzunek ez lukete (15c) adibidea ontzat emango, gainera. Bestetik, onartu egin behar da perpaus erlatiboetan *zeina* (< *zein* + *a*), *zein* izena bailitzan, eta heiagoretan *ze(in) idazle ona den!* ikusten ditugula. Bego kontu hau azterkizun.




dagoenarekin pareka liteke, baldin eta izen-sintagmak, perpausak bezala, funtzio-burua badu.

2. Abneyren ustez, izen-sintagmaren ohiko analisisian erakusleak eta adjektiboak izenaren inguruko elementuak direnez gero, ez da argi aurreikusten izen-sintagma barruan bestela ere aurkitu ohi diren izenik gabeko determinatzaileak eta izenik gabeko adjektiboak banaketa desberdina izango dutela. Datuek besterik adierazten dute:

- (18) a. he seems [*nice*]  
 'Berak jatorra dirudi'  
 c. he seems [{\**the/a*% a} *fool*]  
 'Berak tentela dirudi'  
 e. \* he seems [*that*]  
 'Berak hau dirudi'  
 (datuak Abney (1987: 278)-tik hartuak dira)
- b. \* [*nice*] just walked in  
 'Jatorra etorri berri da'  
 d. [{*the/a*} *fool*] just walked in  
 'Tentela etorri berri da'  
 f. [*that*] just walked in  
 'bera etorri berri da'<sup>14</sup>

Adibideotan ikusten denez, izen-sintagma arruntek (18c-d) eta erakusle soilek (18e-f) berdintsu jokutzen dute; izenik gabeko adjektiboak, aitzitik, bestelako banaketa dute (cf. 18a-b). Jokabide hau nahiko erraz azaldu daiteke, Abneyk dioenez, ohiko izen-sintagmaren ardatza determinatzailea bada, eta erakusle soilak determinatzaile iragangaitzat hartzen baditugu:



3. Ohiko analisiak aldarrikatzen du pertsona-izenordainak funtsean izenak, izen kategoriako elementuak, direla. Hala ere, ez dute izen arruntentz jokabidea, ez baitute posesiborik, zenbatzailerik eta adjektiborik<sup>15</sup> onartzen:

- (20) a. \* [*my she*] has always been good to me  
 '\*\*Nire bera ona izan da beti nirekin'  
 b. \* [*dependable them*] are hard to find  
 '\*\*Konfiantzazko eurak gaitzak dira aurkitzen'  
 c. \* [*many they*] make housecalls  
 '\*\*eurak askok etxeko deiak egiten dituzte'  
 (Abneyren (1987: 281) adibideak)

14. Ingeleseaz, *fool* izena da. Euskal itzulpena ez da hitzez hitzekoa (bestela (d)-ren itzulpena 'Jator etorri da' litzateke, *jator* subjektu modura ulertuta).

15. Abneyk perpaus erlatiboak ere aipatu zituen:

(i) \* *the she that I talked to was nice*

Badirudi, hala ere, erlatiboak D kategoriaren adjunktua izan daitezkeela (cf. Longobardi (1994)).

Abneyk gogoan zuen izen bereziekiako paralelismo eza, ingelesez izen bereziekin perpaus erlatiboak zilegi direlako determinatzailea eta guzti agertuz gero:

(ii) a. \**The Paris*

b. *The Paris that I love*

Kontu honetan aldagai gehiago daude tartean seguru asko. Euskararen datuak, 4. atalean aztertuko ditut gaingiroki.

Datuok ondo ezkontzen dira pertsona-izenordainak determinatzaile kategoriakoak izatearekin: nahikoa dugu modifikazio-mota guztiok IS barrukoak direla proposatu eta pertsona-izenordainek DS soila islatzen dutela suposatzearekin.

4. Pertsona-izenordainek eta determinatzaileek ezaugarri komuna dute: izen-sintagmaren tasun gramatikalen iturburua izatea. Eurengan dautza izen-sintagma osoari dagozkion pertsona, numeroa, generoa bezalako  $\phi$ -tasunak (“gramatika-tasunak”). Zentzu honetan ere, izen-sintagmaren ardatza lirateke determinatzaileak eta enparauak (eta ez izena) (cf. Emonds 1985).

5. Behin perpausaren mailan ardatz modura KONP eta INF bezalako kategoriak onartuz gero, argi dago D kategoriak haiekin duen antza: INF eta KONP kategorien kasuan bezala, Determinatzaile kategoriako elementuek talde itxia osatzen dute (elementu gutxi batzuetara mugatua), ez dute eduki deskribatzaile handirik (zer esan nahi du “-a/-ak” artikulua?, zein da haren antonimoa?), eta ia banan-banako lotura dute kategoria lexiko jakin batekin (izenarekin determinatzaileak, aditzarekin konplementatzaileak eta inflexioak). Hortaz, teoria barruko arrazoinamenduak ere izen-sintagma Determinatzaile Sintagma bezala aztertzea garmatza.


Abneyk emandako argudioak aurkeztutakoan, gatozen argudiook euskaraz nola betetzen diren zehaztera eta, ahal dela, argudio berriak erakustera.

### 3. DSH eta euskal gramatika


#### 3.1. Abneyren argudioez

Euskararako lehia leudekeen azterbide biak azpian bildu dira:

(21)



b.



Batean, izena bera ageri da izen-sintagma deitu ohi dugunaren buru, eta determinatzailea (edo determinatzaile-sintagma osorik) haren espezifikatzaile; bestean, determinatzailea bera da ardatza edo burua, eta bestek (cf. Goenaga 1980, Trask 1983) *Izenaren Multzoa* deitu izan dutena ageri da IS bezala. Ikus dezagun zein argudio dauden bigarrenaren alde egiteko, Abneyk markatutako ildotik.

1. Hasteko, euskal determinatzailearen jokabidea buru batena da: -a/ -ak (eta -ik) artikuluek beti eskatzen dute “IS” osagarria agertzea, eta erakusleek beti dute aukeran “IS” osagarria agertzea (baina “IS” hau agertu edo ez, erakuslearen banaketa ez da aldatzen):


(22)

- a. \* -ak etorri dira
- b. (Lagun) hauek/horiek/haiek etorri dira

Goiko (21a) analisiaren aurka, gainera, hauxe esan daiteke: eskuarki, espezifikatzailearen agerpena buruak zehazten duela, baina ez alderantziz. Hau da,

KONP kategoriak ez du beti eskatzen espezifikatzaile-gunea betetzea; INF kategoriak, ordea, bai; aditzak batzuetan... Bestetik, buruak bere osagarria agertzen denentz ere zehazten du (cf. aditz iragankorrek vs iragangaitzak). Gauzak horrela, (21a) bitxia litzateke espezifikatzailea (determinatzailea) litzatekeelako burua ager daitekeen ala ez zehazten duena; (21b) analisia onartuz gero, ostera, guztiz naturala da aurkitzen dugun jokabide gramatikala: determinatzaile batzuek ezinbestekoa dute osagarria, baina beste batzuek (erakusleek) aukeran dute. Hau da, artikulua [+IS] kategoriatan duten determinatzaile iragankorrek direla eta erakusleak ([+IS]) kategoriatan duten elementuak direla baino ez dugu suposatuko behar:

(23) -a, -ak, D: [+IS]  
*hau, hori, ...*, D: ([+IS])



Eta zergatik ez pentsatu (21a) egitura dela zuzena baina zenbait determinatzailek l' osagaiaren ezabaketa onartzen dutela? Abneyk galdera bera egin zion bere buruari. Eta erantzuna gutxi gorabehera hauxe izan zen: erakusleen “izenordain” erabilera hau (DSHren arabera D hutsaren erabilera iragangaitza baino ez dena) orokorragia da hizkuntzarik hizkuntza ezabaketa-arau zorrotz batzuen azpian biltzeko. Hau da, ezabaketa ezina den testuinguru eta hizkuntzetan beti da posible, hala ere, erakusleen erabilera hau eta ez dirudi zuzena bata bestearen bidez azaltzeko<sup>17</sup>.

2. Euskarazko persona-izenordainek, ingelesez bezala, ez dute ez adjektiborik, ez posposizio sintagmarik, ez determinatzaile onartzen:

- (25) a. \*gu hauek  
 b. \*Oraingo zu gaizto hau  
 c. \* Donostiako gu berriak  
 d. \* itzelezko hi  
 e. \* aipatu {duzun/nauzun} ni hori ez zait gustatzen<sup>18</sup>

Egiaztapen hau harrigarria da pertsona-izenordainak izen kategoriakoak badira (EGLAk arrazoi didaktikoengatik seguruenera esan duen moduan), baina badu


16. *lagun* eta *-ak* banatu dituen (24a) arbola orientabide hutsa da, ez hitzez hitz hartzekoa. Baliteke *lagunak* banatu ezinik sortzea, eta hitza osorik A(zaleko) Egituran D gunera mugitzea.

17. Bestetik, neurrigabeko erabilera honetan estatus garrantzitsu baina azalgaitza luke l' tarteko osagaiak. Ikerlarien ustez tarteko islapen horiek ez dute izaera beregainik sintagmaren eraketatik kanpo, eta Forma Logikoan, interpretazioaren mailan, “ikustezinak” dira; cf. Speas (1990: 38-hh) eta Chomsky (1995: 242-3).

18. (25e) eta antzeko beste batzuk ontzat emango genituzke, modu nahiko markatuan, *ni* hori “ni” hitza esan denaldi bati buruz ari bagara. Baina hori izenordainak ez luke izaki bat edo izaki-multzto bat adieraziko, “ni” izenordaina esaten denaldi bakoitza baizik.

azalpen erraza, pertsona-izenordainak D kategoriako elementu iragangaitzak badira:

(26) a. ni, hi, ...: D [\_\_\_\_\_]



Jakina, IS egiturarik ez badago, nekez egon daiteke adjektiborik, edota posposizio sintagmarik, berauek IS barruko modifikatzaileak direlako. Eta ez dago bestelako determinatzailearik pertsona-izenordainak eurak direlako determinatzaileak (eta, eskuarki, determinatzaile bakarra dago DS batean).

Ingeleseaz ez bezala, ez dirudi pertsona-izenordainek IS osagarria dutelarik ager daitezkeenik euskaraz:

(27) a. [we [sailors]] / [you [idiots]]

b. \*[[marinel] gu] / \*[[tental] zuek]

nahiz eta badiren ingelesezkoen eitea duten bestelako egiturak ere:

(28) gu marinelok / zuek tentelok

Bosgarren atalean bueltatuko naiz (28)-ko egituretara. Bitartean, hauxe nahi nuke azpimarratu: artikulua, erakusleak eta pertsona-izenordainak batera hartuta, hirurek Determinatzaile kategoriaren paradigma biribila osatzen dutela. Bata beti da iragankorra (beti eskatzen du IS osagarria), bigarrenak aukeran du osagarria, eta hirugarrena beti da iragangaitza (ez du onartzen osagarriarik). Nik dakidala, hirukoiztasun honek, aditzen jokabidea gogora dakarkigun hirukoiztasun honek, D kategoria ohiko izen-sintagmaren burua dela berretsi baino ez du egiten. Hiru kasuetan, determinatzailea ezinbesteko elementua da izen-sintagma osatuko bada, baina bakoitzaren aukera lexikoa da izenik onartzen duen ala ez. Zentzu honetan, bada, ohiko izen-sintagman funtsezkoa den elementu formala ez da izena bera, determinatzailea baino. Hortaz, DSH zuzena dela dirudi.

3.  $\phi$ -tasunak (hots: pertsona / numero / genero tasunak) D kategorian dautzala eta beronek zehazten duela ohiko izen-sintagma osoaren nolakotasuna, euskaraz argi baino argiago gelditzen da, D kategoria baita numerorako flexioa duen bakarra, espainieraz ez bezala:

(29) a. pilotari gazte {-a / -ok / hura / haiek...}

b. {aquello/a-s} {precioso/a-s} {niño/a-s}

Argudio onen indargarri, [+singularra] tasuna duen D batek besarkatzen duen izen biren (edo IS biren) koordinazioa aipa daiteke (cf. Longobardi 1994):

(30) a. Negoziazio-mahaiaren arduradun eta Estatu Batuetako senatore  
ohiak esan {du / \*dute} ...

b. *Nire irakasle* eta *aspaldiko lagunarekin* joan naiz afaltzera.  
(Amundarain 1997: 228tik moldatua)

Bistan denez, (30a) adibidean bi izen zenbakarri koordinatzeak ez du nahitaez izen-sintagma plurala sortzen; determinatzailea bera da tasun hori zehazten duena; Amundarainek (1997) zehaztu duen bezala, (30b) adibidearen interpretazio arruntena lagun bakarrarekin afaltzearena izango litzateke, arrazoi beragatik. Ildo beretik, mendebaleko euskaldunek egiten duten *-ak/-ok* bereizketak determinatzailearen ardaztasuna azpimarratu besterik ez du egiten:

- (31) a. Euskaldunok eskubidea {dugu / duzue / \*dute} epaitegian euskaraz deklaratzeko.  
b. Euskaldunek eskubidea {%dugu / %duzue / dute} epaitegian euskaraz deklaratzeko.

Testuingurutik kanpo bederen<sup>19</sup>, *euskaldunok* lehen edo bigarren pertsona baino ezin da izan mendebaleko hiztunentzat, eta *euskaldunek* hirugarren pertsona da ezinbestean; argi dago izen-sintagma osoaren pertsona (eta numero) tasunak *-ak/-ok* bikoteari zor zaizkiola. Hortaz, izen-sintagma osoaren jokabidea Determinatzaileak baldintzatzen badu, arrazoi gehiago dago DSH (hau da, (21b) eskema) zuzen dagoela pentsatzeko.

Euskaraz singular/plural bereizketa D kategoriak egiten duela ikusita, eta pertsona-izenordainek ere egiten dutela kontuan hartuta, berriro aurkitzen gara pertsona-izenordainek D kategoriakoak izan behar dutelako ideiarekin. Baieztapen hau harrigarri samarra gerta dakiokenez bati baino gehiagori, hurrengo atalean (4. atalean) saiatuko naiz xehekiago justifikatzen.

### 3.2. Abneyren argudioez haratago

Atal honen lehen zatian Abneyk DSH aurrera eramateko argudioak euskaraz erreparatu ondoren, bigarren zati honetan nire ustez haren hipotesia indartzen duten beste hiru datu gehiago aipatu nahi nituzke: predikatuen jokabidea, *-ko* atzizkiaren jokabidea, espezifikatzaileen tipologia.

1. Artiagoitia (1997a) lanean orain harira ez datozen argudioen bidez erakutsi dut euskaraz artikulua eta guzti ageri diren predikatuak benetako Determinatzaile Sintagmak direla. Aldarrikapen hau zuzena dela onartuz gero, bi gauza ikusten ditugu euskaraz:

(a) aditz batzuek IS hutsa (edo AdjS) hautatzen dute osagarri, baina beste batzuek DS hautatzen dute:

- (32) a. Lankideek Miren {buru / \*burua} izendatu dute.  
b. Miren {?? liburuzain / liburuzaina} da lanbidez.

Kasu korapilotsu batzuk alde batera utzirik (*bihurtu*, *egin*, *bilakatu* bezalako aldaketa aditzak edota *izan*-en erabilera zenbait hizkeratan kasu), argi ikusten da izen predikatuek artikulua dutenentz ez dela zeharo aukerakoa euskaraz, eta beharrezkoa dugula aditz hautatzailearen araberrako erabakiak hartzea: *izan* aditzak (interpretazio jakin batean, behintzat) ezinbestekoa du gaur egungo (Hegoaldeko) euskara mintzatuan artikulua, baina *izendatu* aditzak, ostera, ez. DSHren ikuspegitik, honek esan nahi du aditz batzuen kategoria-hautapena [+IS] dela, eta

19. Bestela *-ok* hirugarren pertsonakoa ere izan daiteke, erakusle antzekoa:

(i) Hiru lagunekin bizi naiz, eta hiru lagunok euskaldunak dira.

beste batzuen [DS] dela<sup>20</sup>. Baina aukera hori artikulua (determinatzailea, beraz) ohiko izen-sintagmaren ardatza dela onartzea da praktikan, DSH-ak berak dioen bezala;

(b) Aditz batek behin osagarri modura DS predikatua hautatuz gero, artikulua adjektiboarekin zein izenarekin ager daiteke:

- (33) a. Miren {jatorra, bertsolaria, argala, maisua, ...} da/dugu.  
b. Atzetik begiratuta, {gizona, argala, emakumezkoa, polita, liraina, apaiza...} iritzi diot.  
c. Anaiak {onak, bertsolariak} bilakatu ziren<sup>21</sup>

Zer esan nahi du honek? Ba, *-a/-ak* artikulua, DS predikatueta balio erreferentziaduna ez duen artikulua alegia, AdjS zein IS eduki dezakeela osagarri. Baina, berriro ere, hori esatean predikatu mota honetan burua edo ardatza, gramatika-egituraren ikuspegitik behintzat, artikulua bera (determinatzailea, hortaz!) dela ari gara onartzen, *buruen ezaugarria baita bere osagarria hautatzea*.

Laburbilduz, euskal predikatuen azterketak determinatzaileak euren sintagmaren ardatz direla erakusten du.

2. Ohiko analisisian (cf. Goenaga 1980, 1991) I' edo IM zena IS osoa litzateke DSHren arabera. Eguzkitzak berak (1993) ohartarazitako aldaketa honek, Trask-ek (1985) proposatu zuen bitxikeria bat baztertzeko aukera emango luke: azken autore honen arabera, (34)-n bildu ditugunak bezalakoen, *-ko* atzizkia I' osagaiari lotuko litzaioko eta ez izen-sintagma mugagabe bati (ez baitu *-ta-* artzizkia onartzen):

- (34) a. osasun ederreko mutila   c. hortz biko haitzurra  
b. beso ederreko pilotaria   d. hiru urteko umea  
e. hiru herritako lasterketa / \* hiru herriko lasterketa  
Trask-etik hartuak (1985: 171)

I' bezalako tarteko osagaien gramatika-izaera oso badaezpadakoa da (cf. 3. eta 17. oharrek); ikerlari gehienek sintagma barruko antolaketaren ikuspegitik haren izatea onartzen badute ere, nahiko argi uzten dute tarteko osagaiok ikustezinak direla interpretazioaren ikuspegitik edota kategoria-hautapenaren ikuspegitik (cf. Chomsky 1995: 242-h). Hau da, hizkuntzen arteko ikuspegitik bitxia da oso *-ko* atzizkiak (34)-ko adibideetan I' hautatzen duela esatea. Ordea, DSHren barruan *-ko* atzizkia IS oso bati atxikitzen zaion posposizioa dela esan behar dugu soil-soilik, batere arraroa ez den baieztatpena alegia. Gainontzeko kasuetan, Posposizio-Sintagma bati atxikiko litzaioko (cf. *etxerako* < *etxera* + *ko*, *zurekiko* < *zurekin* + *ko*)<sup>22</sup>.

Argudio hau zuzena bada<sup>23</sup>, zeharbidezko arrazoi bat gehiago genuke batetik, DS eta, bestetik, IS hutsa dena bereizteko; baina bereizketak, noski, DSH zuzena dela esan nahi du.

---

20. Antzeko arrazoinamenduetarako ikus Stowell (1989) eta (1991).

21. Hizkera jasoan, artikulurik gabeko erabilera hobesten bada ere (cf. Euskaltzaindiaren erabakiak), euskara mintzatuaren artikulua azpian bai adjektiboak bai izenak aurkitu ditut aldaketa aditzen osagarri.

22. Hala ere, de Rijkek (1988, 1993) aldarrikatzen du *-ko* beti Posposizio-Sintagmei lotzen zaiela (eta Adj kategoriako elementuak sortzen dituela).

23. EGLAn (165-hh) esaten da tankera honetako *-ko* sintagmak *-tako* sintagmak bezala azaldu izan direla ekialdeko autoreetan, eta espreski iradokitzen *-ko* hau singularrak diren [guretat DS] sintagmei

3. Azkenik, teoria barruko argudio bat badago DSH zuzena dela esateko eta aurreko (2.) atalean aipatu dugun arazoa konpontzeko: DSH onartu ezik, euskaraz izen-sintagma litzateke sintagma guztietan espezifikatzailea eskuinetara lukeen buru bakarra. Kontuan hartuta tipologikoki hizkuntza buru-azkenak diren eta ere espezifikatzailea buruaren ezkerretara ageri ohi dela (cf. Kayne 1994), bitxikeria susmagarritzat jo beharko genuke salbuespen hau. Determinatzailea burua bada berriz, naturaltasunez azaltzen dira gauzak: euskaraz, DS barruan ere ardatza osagarriaren ostean dator (hau da, IS-D hurrenkeran), espero litekeen bezala<sup>24</sup>.


Laburbilduz: atal honetan Abneyk emandako argudio gehienak banan-banan eztabaidatu ditugu euskal gramatikaren ikuspegitik, eta hark esandakoarekin bat datozela ikusi dugu. Aplikagarria ez den argudio bakarra izen-sintagma barruko komuntadurarena da, euskaraz ez baitu perpausen kasu-markaketa sistema DS barruan erabiltzen. Ondorio bezala, hauxe esan behar: euskal tradizioan izen-sintagma bataiatu dugunaren burua determinatzailea bera dela, eta, beraz, zuzenagoa dela DSaz hitz egitea, (21b)-k jasotzen duen bezala.

### 3.3. DSH eta euskarazko DS barruko bestelako elementuak

Artikulu honek ez du euskarazko DSaren azterketaren gaia agortzeko inolako asmorik eta jakinmin handia duen irakurleak Eguzkitza (1993), Laka (1995) eta Artiagoitia (1997a, 1997b) lanetara jo beharko du ezinbestean. Hala ere, goiko (21b) egitura ontzat emanez gero irakurlearen baitan sor daitezkeen galdera behinenei erantzuten saiatuko naiz, labur-labur baino ez bada ere.

Lehen galdera: zerk betetzen du izenaren osagarri-gunea eta zerk espezifikatzaile-gunea? Osagarriari dagokionez, sare tematikoa duten izenetara mugatuko litzateke aukera hau, izen-sintagmaren ohiko analisisian bezala. Espezifikatzaile-gunea, berriz, eta sare tematikoa duten izenetara mugatuz berriro, izen horren kanpo argumentuak edo subjektuak beteko luke gune hori seguraski (Eguzkitzak berak (1993) proposatu bezala):

(35)



Sare tematikoa ez duten izenen kasuan, zenbatzaile-sintagma eta neurri-sintagma proposatu zituen Abneyk [espezifikatzaile, I] generako. Hizkuntza sena duen edozein euskaldunek dakien bezala, neurri-sintagma izenaren ezkerretara

lotzen zaiela. Hala izatera, argudio hau ezerezean geratuko litzateke. Bestetik Euskaltzaindiak, arrazoi osoz nire ustez, guztiz arbuatzen du -ko posposizioaren erabilera hau eratorpenezkoa izatea, Trask-ek proposatu bezala.

24. Ageriko sintaxiaz ari naiz. Kaynek (1994) arrazoi badu, orduan hizkuntza guztiek sakonean espez-buru-osagarri hurrenkera izango lukete. Ikerkizun dago kontu hau.

ageri ohi dira, baina zenbatzaile zehaztugabe asko eskuinetara agertuko zaizkigu, hala nola orokorra den *bat* eta zenbait hizkeratako *bi* ere:

- (36) a. [Hiru litro] ardo  
 b. [Zaku bete] lasto  
 c. [lau / hiru / bi] lagun  
 d. lagun [bi / bat]  
 e. [zenbait/ honenbeste/ horrenbeste/ nahikoa ...] lagun  
 f. lagun [asko / gutxi / nahikoa / zenbait ...]


Hortaz, azterkizun legoke izenaren eskuinetara ageri diren zenbatzaile-sintagmak zergatik ageri diren hor.

Bigarren galdera-edo hauxe genuke: zerk betetzen du determinatzailearen espezifikatzaile-gunea? Ingelesean posesiboak betetzen zuela argudiatu zuen Abneyk, dela benetako posesiboa dela sare tematikoa duen izen baten subjektua, eta posesiboarekin batera ageri den 's morfema hori D guneko *komunztadura* antzeko zerbait zela proposatu. Euskaraz, ez dago arazorik benetako posesiboak [espez, D] gunean sortzeko (cf. Eguzkitza 1993); gainera, zenbatzaileen eta neurri-sintagmen aurretik agertzen dira, espero bezala:

- (37) a. Arrateren lau litro ardo     *baina*     a'. \* Lau litro Arrateren ardo  
 b. Jonen lau lagun                 *baina*     b'. \* Lau Jonen lagun

Gaitza bada ere, eta adibideek bati baino gehiagori arrazoiz harridura sortzen badiote ere, posesiboak [Espec, D] gunean sortzeak iragartzen du sare tematikoa ETA posesiboa dituen *irudi* bezalako izen baten kasuan bi espezifikatzaileentzako adinako "egitura" izango dela (ingeleseaz ez bezala); Eguzkitzaren adibide batzuek horixe erakutsiko lukete:

- (38) a. Von Thyssen-en     Riberaren             eskalearen irudia  
 posesiboa                 egilea/subjektua     gaia/objektua  
 Eguzkitza (1993: 166)-tik moldatua  
 b.



Puntu honetan, zenbait zalantza eta galdera zilegi sortzen dira agian. Zer gertatzen da sare tematikorik ez duen izen baten kasuan: nola dakigu posesiboak [Espec, D] gunea, eta ez [Espec, I] gunea, betetzen duela? Edota, nola dakigu zenbatzaileek ez dutela [Espec, D] gunea betetzen...? Gehienetan, teoria barruko erabakiak izaten dira horrelakoak, baina baliteke zenbait arrazoi enpiriko (ez beti guztiz sendoak, egia esan) egotea erabaki batzuk justifikatzeko. Esaterako: IS hutsak diren sintagmetan *-ren* posesiboak gaitzagoak dira aurkitzen DSetan baino:



- (39) a. Jon [unibertsitateko errektore] izendatu dute  
 b. Miren [saileko buru] hautatu dute  
 c. ?? Jon [unibertsitatearen errektore] izendatu dute  
 d. ?? Miren [sailaren buru] hautatu dute

Hots, hiztun batzuek “Urlia unibertsitateko errektorea da” zein “Urlia unibertsitatearen errektorea da” onartu arren, IS hutsa erabiltzean nekezago onartzen dute posesiboa, berau DS mailakoa izan arren IStik kanpokoa delako edo<sup>25</sup>. Besterik litzateke *lagunaren [bila, beldur]* bezakakoen egoera, hor *lagunaren*, seguraski, *bila* eta *beldur* horien osagarri hutsa delako, haiekin erlazio tematiko edo semantiko estua baitu.

Bestetik, esana dugu arestian, Trask-en lantxo bat birmoldatuaz, *-ko* atzizkia gauza dela IS hutsei atxikitzeko; bistan denez, ez singular ez plural ez mugagabe ei diren IS horietan, zenbatzaileek ba omen dute lekua, seinalea zenbatzaileok IS barrukoak direla eta DStik kanpokoak agian:

- (40) a. [Hiru urte]-ko haurra (\*hiru urtetako haurra <hegoaldean> )  
 b. [Hitz gutxi]-ko pertsona (\*hitz gutxitako pertsona <hegoaldean>)

Ez da hemen amaitzen zenbatzaileen eta [espez, D] gunearen problematika<sup>26</sup>. Laka (1993) eta Artiagoitia (1997a) lanetan ohartarazten da euskarazko DSetan ia beti behar dela ageriko determinatzailearen bat, erdaretan zenbait kasutan<sup>27</sup> ezinbestekoa ez den baldintza, alegia:

*Gaztelaniaz:*

- (41) a. Hemos bebido [D 0] vino  
 b. Han llegado [D 0] camiones

*Ingelesez:*

- (42) a. We drank [D 0] wine  
 b. [D 0] trucks arrived

*Euskaraz:*

- (43) a. {Ardoa / \*ardo [D 0] } edan genuen  
 b. {Kamioiak / \*kamioi [D 0] } heldu dira

Artiagoitia (1997a) lanean esan dudana bezala, honen gakoa Longobardi (1994) haizaturako oinarri morfologikoetan aurkitu beharko litzateke: argumentuak diren DSetan, gramatika-numeroa bezalako ezaugarriak “lie precisely in the D position” (1994: 620) [D gunean dautza hain zuzen ere]. Euskaraz numeroa D kategoriak baino erakusten ez duenez (hots: ez izen soilak ez adjektiboak ez dutenez), ezin

25. B. Oyarçabalek (k. i.) arrazoiz diostanez, neure aldarrikapen hau eta koordinazioaren datuak kontraesanean daude:

(i) [Zure liburu] eta [ene artikulu] -ak ekarri ditut.

Hots, badirudi posesibo arrunta biltzen duten “IS” hutsak koordina daitezkeela, posesiboa IS barrukoa bailitzan. Aldagai eta azalpen gehiago egon daiteke tartean (esaterako, agian DS bi koordinatzen dira baina D isilik dago) baina, koordinazioa azaltzea lan honen mugetatik kanpo dagoenez, bego datu hau ikerkizun.

26. Eguzkitzak (1993) argudiatu du gune hori, sare tematikoa duten izenen kasuan, subjektuak betetzen duela A(zaleko)-Egituran, IS barrutik mugitu ondoren. Mugidarako arrazoiak (I-D inkorporazioa, Islapen Hatsarre Zabaldua) ez dira sendoegiak nire ustez.

27. Murriztapenen berri izateko ikus Longobardi (1994).


egon daiteke determinatzailea isilean gordetzen duen DSrik, orduan ezerk ez digulako numeroari buruzko informaziorik emango. Gaztelaniaz eta ingelesez, berriz, D isila (zero) denean, izenak berak ematen digu informazio hori.

Baina itzul gaitezen Lakaren eta Artiagotiaren lanen egiaztapenera; DSek ageriko D behar dutelako arau horrek salbuespen bakarra du: ez singular ez plural diren mugagabeak deitzen ditugun DSak. Hau da, zenbatzailearen bat duten ageriko determinatzailearik gabeko DSak, hain zuzen:

- (44) a. Hiru lagun [D 0]  
 b. Hainbeste lagun [D 0]


Horietako, Lakak (1993) hauxe iradokitzen du: zenbatzaile-sintagma horiek [espez, D] gunea betetzen dutela. Proposamen hau oso erakargarria da eta ez dago ezinbestean zenbatzaile-sintagmok [espez, I] gunean kokatzearekin kontraesanean; nahikoa genuke Forma Logikoaren mailan (interpretazioa eragiten duen mailan) [espez, I] gunetik [espez, D] gunerako mugimendua gertatzen dela esatearekin<sup>28</sup>. Honela, batetik Forma Logikoan zenbatzaileak [espez, D] gunean kokatzeak indarra emango lioke euskal DSek numeroa nolabait adierazi beharraren orokorpenari; determinatzailea zero denean, beharko litzateke hura zilegiztatuko duen eta, aldi berean, (komuntzadura bidez) numero informazio emango duen elementuren bat. Horrela uler dezakegu Lakaren iradokizuna beraz: zenbatzaile sintagma izan daiteke, agian IS barruan sortuta ere, D kategoriaren numerotasun hori erkatzen edo zilegiztaten duena determinatzailea zero denean:

(45)



Beste horrenbeste proposa liteke neurri-sintagmekin:

- (46) a. [Hiru litro] esne [D 0]  
 b.



28. Arazo teknikoan ur sakonetan sartu gabe, esan dezadan Chomskyren (1995: 4. atala) arabera ez legokeela problemarik D kategoriak maila horretan espezifikatzaile bi izateko: posesiboa = oinarriko espezifikatzailea eta zenbatzaile-sintagma = mugidaren bidez sorturikoa.

Datuak uste baino nahasiagoxeak eta intesgarriagoak gertatzen dira neurri-sintagmen arloan (besteak beste, hiztunik hitzun aldaketak daudelako), baina aztergai hau alde batera utziko dugu oraingoz<sup>29</sup>.

DSHren aldeko euskal argudioak emandakoan, jo dezagun euskarazko pertsona-izenordainak arreta handiagoarekin aztertzeraz.

#### 4. Euskarazko pertsona-izenordainak D kategoriakoak dira

Deiturak berak dioenez, izenordainek izenak (edo hobe esan, izen-sintagmak) ordezkatzat dituzte, eta ohitura dugu, arestian esan bezala, hauek ere I kategoriakotzat jotzea. Hala ere, erakutsiko dudanez, *izenordain* etiketa hau engainagarria suerta daiteke.

EGLAK (1993) (arrazoi didaktikoak ere tartean direla seguruenera) izen berezien antzekotzat jotzen ditu pertsona-izenordainak arrazoi birengatik: (a) mugatzailerik gabe agertzen direlako, eta (b) izen-sintagma erreferentziaduna osatzen dutelako. Eta pertsona-izenordainen artean hauexek aipatzen ditu:

(47)		sg		pl
	1. pertsona	NI		GU
	2. pertsona	HI	ZU	ZUEK
		berori		beroriek (eurok)

EGLA (1993: 53-54)

Nabarmena da hirugarren pertsonako pertsona izenordainik ez dagoela, eta horren ordezkariak *hura/haiek* erakusleak edo *bera/beraiek/eurak* darabiltzagula. Hementxe dago lehen gakoa: erakusleak edo haiengandik eratorriek hirugarren pertsonako izenordainen hutsunea estaltzen badute, pentsatzekoa da arrazoi nagusia hauxe izan daitekeela: pertsona-izenordainak ere D kategoriakoak izatea. Baina goazen gutxika-gutxika.

1. Oso zalantzakoa da pertsona-izenordainak izen berezitzat jotzea, hauek ez bezala, nekez onartzen baitute modifikatzailerik. Erkatu ondoko adibide-multzoak:

- (48)
- a. \* zu zaharra
  - b. \* Oraingo hi hau
  - c. \* hi gurea
  - d. \* zu batek ez luke horrelakork egingo
  - e. \* zein hi/ berori?
  - f. \* Zu guztiak...
  - g. \* hiru zuek...

---

29. Neurri-sintagmek zero determinatzailearekin agertzeko joera dute ("mugagabea"), baina ez da hori aukera bakarra:

- (i) Hiru litro esne [D 0] edan dugu (= 46a)
- (ii) \* Hiru litro esne {-a, hau} edan dugu
- (iii) a. %( Zuk ekarritako) hiru litro esneak edan ditugu
- b. %( Zuk ekarritako) hiru litro esne hauek edan ditugu

Hiztun askok (baina ez denek) neurri-sintagmako zenbatzailearekin komunztadura duen artikulua edo erakusle plurala onartzen dute, *esne* izenarekiko komunztadura baztertuz. Gai honek azterketa sakonagoa beharko luke.

- (49) a. Hitchcock zaharra antzerki ezagun honetaz baliatu da gure txolarteak alaitzeko (Mitzelena 1988)  
 b. Aurreko Bruto handi hark azkeneko Erregeren mendetik atera zituen Erromarrak (Mitzelena 1988)  
 c. Peru gurea  
 d. Axular batek ez luke horrelakorik esango  
 e. zein Etxepare ari zara irakurtzen?  
 f. Galindo guztiak ez dira berdinak  
 (cf. goardia zibil guztiak ez dira berdinak)  
 g. Galindo bi ezagutu ditut (cf. jeneral bi ezagutu ditut)

Izen bereziek ez dute mugatzailerik behar, berez dutelako erreferentzia, baina (49) bezalako datuek bermatu egiten dute izentasuna: (49a-b-c) adibideekin konturaten gara erreferentzia zehaztua gorabehera izenaren inguruko adjektibo edo izenlagun batek artikularen nahitaezko agerpena eragiten duela; (49d-g) adibideek, berriz, agerian ipintzen dute izen bereziek izen arruntena bezalako erabilera ere onartzen dutela, modu aski markatuan bada ere, zenbait kasutan. Kasu hauetan, izen bereziak ez dauka erreferentzia bakar eta jakina, deitura bera duten gizakien taldea izendatzeko erabiltzen da, besterik gabe (izen arrunten erara). Pertsona-izenordainek, berriz, bestelako ezaugarriak dituzte, ez dute onartzen inongo determinatzaile edo adjektiborekin agertzea. Ezaugarriok erakusleen euren jokabidea gogoratzen digute:

- (50) a. \*Hau zaharra  
 b. \*Hori gurea  
 c. \*hau bat  
 d. \*hura bi  
 e. \*zein hori?  
 f. ...

nahiz egia den erakusleek izen-sintagmaren amaieran egonik Izenaren modifikatzaileak izan ditzakeela<sup>30</sup>:

- (51) a. Santutxuko hau  
 b. Madrilgo (hiru) bizardun hauek

2. Pertsona-izenordainek singularra eta plurala bereizten dute, euskaraz D kategoriaren ezaugarria dena:

- (52) a. Determinatzaile singularrak: -a, -(r)ik, hau, hori, hura, ...  
 b. Determinatzaile pluralak: -ak, -ok, hauek, horiek, haiek, ...  
 (c. Determinatzaile mugagabeak: zero, zein, ... )  
 (53) a. Pertsona-izenordain singularrak: ni, hi, ...  
 b. Pertsona-izenordain pluralak: gu, zu, zuek...

Bide batez, puntu honetan irakurlea ohartu behar da (zero determinatzailearekin ageri ohi diren) zenbatzaile zehaztugabeek (*asko, gutxi, horrenbeste*) eta, euskalkien arabera, zenbatzaile zehaztuek ez dutela numeroa bereizten eta horregatik onartzen dutela singularren zein pluralaren komunztadura:

30. Erakusleen ezaugarri hau [+IS] gauzatzeko aukerari zor zaio, seguraski, -ko posposizio-sintagmak eta zenbatzaileak IS barrukoak baitira.

- (54) a. Lagun asko etorri {da / dira} jaialdira  
 b. Hiru lagun ikusi {%dut / ditut} jaialdian

Hau da: zenbatzaileek, benetako determinatzaileek ez bezala, ez dute numeroa bereizten.

Orain arteko argudio biok nahikoa lirateke pertsona-izenordainak D kategorian sartzen direla esateko. Baina argudio gehiagorekin defenda daiteke hau.

### 3. Erakusleen moduan, forma indartuak dituzte pertsona-izenordainek:

- (55) erakusle indartuak: hauxe, horixe, ...  
 (56) pertsona-izenordain indartuak (EGLA: 56):
- |       |         |        |
|-------|---------|--------|
| neu   | nihaur  | nerau  |
| heu   | hihaur  | herori |
| geu   | guhaur  | gerok  |
| zeu   | zuhaur  | zerori |
| zeuek | zuihauk | zerok  |

Alde batera uzten ditut, jakinaren gainean utzi ere, forma indartuen arloan hizkeratik hizkerara daudekeen aldeak edota erakusleen eta pertsona-izenordainen forma indartu sail bien artean daudekeen aldeak ere; nahikoa da puntu honetaz determinatzaileen azpitalde garbia diren erakusleen eta pertsona-izenordainen arteko antzak agerian uztea, kategoria-kidetasunaren erakusgarri<sup>31</sup>.

### 4. Badago DS mailako modifikatzaile bat IS hutsaren barruan nekezago azaltzen dena, hots perpaus erlatiboak:

- (57) a. Jon denetarik dakien irakaslea da  
 b. \*Jon denetarik egiten duen irakasle dago Donostian

Longobardik (1994), hau bezalako kontrasteetan oinarrituta, irizpide hori darabil DS eta IS bereizteko<sup>32</sup>. Irizpide honi gagozkiola, egia da pertsona-izenordainek huts egiten dutela perpaus erlatiboak onartzerakoan; baina euren ordeztasunak erakusleak edo artikulua ageri dira eta, harrigarriro, pertsona-izenordainen ezaugarriak dituzte hemen komuntadurari dagokionez (cf. de Rijk 1972):

- (58) a. Berandu etorri zaren *hori* goseak al *zaude*? (de Rijk 1972: 161)  
 b. Saileko idazkaria naizen *honek* ondo *dakit*...  
 b. Herriaren zerbitzari apalak garen *hauek* (-ok) *badakigu*...

Pertsona-izenordainek, orduan, ez dute zuzenean perpaus erlatiborik onartzen (zergatia argi ez dakigularik), baina haiek ordezkatzeko dituzten (eta pertsona-izenordainen numero eta pertsona tasunei eusten dieten) lagunak erakusleak eurak dira. Gertakari honen azalpena asko erraztuko litzateke pertsona-izenordainak eta erakusleak kategoria berekoak (hau da, determinatzaileak) direla esango bagenu, Abneyk (1987) eta, lehenago, Postalek<sup>33</sup> (1969) aldarrikatu duten bezala.

31. Are gehiago: ekialdeko pertsona-izenordain indartuak formalki *pertsona-izenordainak + erakusleak* baino ez dira: *ni + haur, hi + haur, ...* Erabileraz ere (cf. EGLA: 57), hauek mendebaleko *ni neu, hi heu* eta abarren antzekoak dira; hots, D biren errepikapenaren oihartzuna dute.

32. Bestek IS barruan kokatzen dituzte erlatiboak, hala ere (cf. Borsley 1997).

33. Izenordainak tasun multzoak [+1. pertsona, -2. pertsona, ... +singularra] baino ez badira (cf. Postal (1969)), badirudi euskaraz tasun multzo horiek azpian daudela baina erakusleak gauzatzen dituztela kasu berezi honetan. Arrazoiak ihes egiten dit.

5. Euskaltzaindiak (1994) azpimarratu duenez, euskaraz ez da gramatikala DS bi koordinatzea bigarrenak kasu-marka edo posposizioa badarama, baina egiturak gramatikalak dira lehen juntagaiak determinatzailea isilean gordetzen badu<sup>34</sup>:

(59) a. \*Nagusia eta langileei mintzatu zitzaien  
b. \*Itsasoa eta mendietan ibili naiz  
(EGLU-IV-tik (1994: 42) hartuak dira adibideok)

(60) a. birigarro eta zozoei (Goenaga 1991: 855)  
b. Itsaso eta mendietan ibili naiz

Espero daitekeenez, erakusle soilek jarraitu egiten diote koordinazioaren gaineko debeku honi, determinatzaile hutsak baitira:

(61) a. \*Hau eta horiek egingo dute (EGLU-IV, 1994: 34)  
b. \*Hau eta horretan ibili naiz.

Pertsona-izenordainek ere erakusleen antzera jokatzeko dute, hots determinatzaile hutsak bailiren:

(62) a. \*Zu eta eni gertatu zaigu (EGLU-IV, 1994: 34)  
b. \*Zu eta nirekin egon nahi du

Pertsona-izenordainak izenak izatera, (62)-ko datuak (60)-koekin lerratu beharko liriteke (izen hutsak ageri baitira hor lehen juntagaien), baina ez da hori gertatzen.

Debeku honen iturria zeinahi dela ere, ondorioa argi dago: pertsona-izenordainek, baita koordinazioaren ikuspegitik ere, ageriko determinatzailea duten DSak bezala jokatzeko dute<sup>35</sup>; beste hautagairik ezean, pertsona-izenordainak eurak baino ezin dira izan ageriko determinatzaile hori.

6. Pertsona-izenordainak Izen kategoriatik (eta are izen berezien azpimultzotik) aldentzen dituzten beste ezaugarri bat kopuruarena da: izenek, bereziak barne, multzo mugagabea osatzen dute, ezin konta ahalako izen arrunt eta berezi daude hizkuntzarik hizkuntza, eta hizkuntza bakoitzaren tradizio eta arauen barruan izen berriak asmatzera ere jo daiteke. Pertsona-izenordainak, ordea, gutxi batzuk baino ez ditugu... erakusle eta artikuluen antzera. Eta, noski, ezin ibil gintezke pertsona-izenordain berriak asmatzen, mugatzaile berriak asmatzen ez gabiltzan arrazoi beragatik.

Arrazoi hauengatik guztiengatik uste dut pertsona-izenordainak D kategoriako elementu iragangaitzat jo beharko ditugula, mugatzaile eta abarrekin batera. Izen bereziei dagokienez, argi dago berauek ere DS osatzen dutela, DS arrunten banaketa bera baitute:

(63) Nork esan du hori?  
a. Nik  
b. Txorrierriko euskaraz berba egiten duten hiru lagun horiek  
c. Tabernari gazte hark  
d. Agirrek


---

34. Alde batera uzten dut holako kasuetan IS hutsa ala D isilean duen DS bat daukagun erabakitzea.

35. B. Oyharçabali zor diot datu honetaz gogorarazi izana.

Izen berezien kasuan, baina, ageriko syntaxian D gunea hutsik dagoela ematen du, baina izen berezi hori duen DS *singular* bezala interpretatzen da<sup>36</sup>. Determinatzaile-Sintagma hauek Longobardik markatutako ildotik azter litezke: haren proposamenaren erreferentzia jakina eta zehatza duten izen bereziak D gunera mugitzen dira unibertsalki, dela agerian (latin hizkuntzak), dela Forma Logikoan (hizkuntza germaniarrak). Horren arabera, euskarazko izen bereziak, *berez [+singular]* eta [+erreferentziaduna] tasunak dituztenak, D gunera mugituko lirateke bere  $\phi$ -tasunak erkatzeko:

(64)



Zaila da mugida hau ageriko syntaxian, Azaleko Egituran, ala ezkutuan, Forma Logikoan, gertatzen den erabakitzea. Datu batek, baina, mugida hori ezkutuan gertatzen dela adierazten digu; berriro ere, koordinazioak dauka giltza:

- (65) a. Giputz aditza erabili dute... *Mirande eta Peillenek* sarritan  
(Mitxelena, 1988)  
b. *Billarreal ta Otxandioko* langile irmeak... (T. Agirre, *Garoa*, 180)  
c. *Jon eta Mireni* deitu behar diet  
(lehen bi adibideak EGLU-IV (1994: 41)-tik hartuak dira)

Hots: izen bereziak biltzen dituzten DS bi koordinatu ditugu bigarrenak kasu-marka edota posposizioa daramala, eta emaitza gramatikala da; hau da, ematen du lehen juntagaian, DS egonda ere, ez dagoela ageriko determinatzailearik, arestiko (61-62) bikoteetan ez bezala, eta honek pentsarazten digu izen berezia A-Egituran IS barruan dagoela, eta ez dela D gunera mugitu.

Azterbide hau onartuz gero, ez diogu uko egin behar euskaraz DS guztietan ageriko determinatzaile antzeko bat egon behar dela dioen orokorpenari: izen bereziak dauden DSetan, berezko [+sg] eta [+erreferentziadun] tasunak dituen izenarekin komunztadura egiten duen [+sg] tasuna ulertu behar da D gunean<sup>37</sup>. Eta azterbide hau ez da teknikoegia: har beza kontuan irakurleak izen bereziak “singularrak” direla eta *zuzenean* hartzen dituztela “deklinabideko atzizkiak”, *-ta*-eta bestelako elementurik gabe; “Bilbon-Bilborengatik” eta “Gasteizen” esaten

36. Izen berezia plurala denean, ostera, DS horretan artikulua bera dago agerian: Pirinioak, Bardeak, Bortzerriak...

37. Ez dezagun ahaztu izen bereziek perpaus erlatiboak onartzen dituztela euskaraz (ageriko D-rik ez dagoen arren):

(i) “EAEko Arartekoa den Markiegik esan duenez...”


Longobardik (1994, 1996), tamalez, ez du argitzen zergatik den ezinezkoa izen berezi soilen erlatibatzea ingelesez edo italieraz.

dugu, “\*Bilboan/\*Bilbotan-\*Bilboarengatik” edo “\*Gasteizean” esan beharrean<sup>38</sup>. Hau da, izen bereziak Azaleko Egituran D gunea hutsik balego bezala “deklinatzen” ditugu, eta ez zero determinatzailea (“mugagabeak”) edo -a singularreko artikulua izango balute bezala<sup>39</sup>.

Izen bereziaren D gunerako mugida hori zilegi ez den kasuetan soilik, hots: I eta D buruen artean adjektibo batek mugida oztopatzen duenean soilik, da beharrezkoa artikulua, DS osoa zilegiztatzeko:

- (66) a. \* *Agirre ausart-0-ek* faxismoaren kontra hitz egin zuen  
 b. *Agirre ausart-a-k* faxismoaren kontra hitz egin zuen

(67)



Ageriko artikulua beharrezkoa da izen berezia eta D buruen artean beste buru bat dagoenean (Adjektiboa), izenak kasu honetan ezin baitu D gunea ordezkatu (Buru Mugimenduaren Baldintzarengatik)<sup>40</sup>. Adjektiboak berak ere ez du D ordezkatuko ez baitu [+sg] tasuna. DS gramatikala sortzeko aukera bakarra, orduan, determinatzailea betegarri huts antzera txertatzea da (eta adjektiboak eta artikulua bat egiten dute arrazoi morfofonologikoengatik: artikulua atzizkia da)<sup>41</sup>.

Laburbilduz: atal honetan hainbat arrazoi eman ditugu pertsona-izenordainak D kategoriakoak, eta ez I kategoriakoak, direla esateko; datuak oso erraz azaltzen dira DSHren barruan baldin eta pertsona-izenordainak D iragangaitzak direla suposatzen badugu. Izen bereziekin antz nabarmena duten arren (bestelako modifikatzailerik gabe agertzeko gaitasuna), ezberdintasunak ere ikusi ditugu: izen bereziek, baina ez pertsona-izenordainek, izenlagunak eta adjektiboak izan

38. Ez diot inesibo singularreko “-(e)an” horretan -a- artikulua denik. Baina argi dago de Rijken (1981) ustez \*-ga- morfematik eratorriko litzatekeen -a- hori sinkronikoki singularrean -a artikulua eta guzti agertzen duten DSetan baino ez dugula kausitzen. Hortaz, izen bereziek -a- hau ez edukitzea singularrak izan arren, ondo azaltzen da nire proposamenean: D gunea, [+sg] tasuna alde batera utzita, hutsik dago.

39. Hau da: batetik, “mugagabeetako” zero *determinatzailea* (ez singular, ez plural dena), eta bestetik izen bereziekin dagoen [+sg] tasun hutsa, determinatzailerik gabekoa, bereizi behar direla uste dut.

40. Labur esanda: buru batek hurbilen duen buru-gunera baino ezin du mugitu. (66)-ko datuak azaltzeko, badirudi AdjS hartu behar dugula D-ren osagarritzat, I-Adj batuketak ditugunean, Artiagoitiak (1997b) iradoki bezala.

41. Esan dezadan laburki zergatik ez den \**Agirrea* gramatikala Longobardiren proposamenean. Hor, artikulua betegarri (“expletive”) hutsa litzateke, izen bereziak duelako erreferentzia zehatza. Gramatikak, egoera honetan, beti nahiago du biderik ekonomikoena, erosoena: izen berezia D gunera zuzenean mugitzea. Joera hau hainbat hizkuntzatan bortxatzen da (cf. italiaraz eta katalanez), baina baldintza artikulua tasun gramatikal aberatsak (esaterako, numeroa eta generoa) edukitzea izaten da. Euskarazko artikulua ez bide du baldintza hori betetzen (numeroa baino ez du bereizten, eta gainera zehaztua eta zehaztugabea balioak izan ditzake).



ditzakete lagun; azken kasu honetan, gainera, ezinbestekoa dute artikulua; eta, koordinazioaren alorrean ere, jokabide desberdina dute batzuek eta besteek. Berdintasun-ezberdintasunok Lonbogardiren (1994) proposamenaren ondorioztat jo daitezke: pertsona-izenordainak D kategoriako elementuak dira berez, eta izen bereziak, I kategoriakoak izanik ere, modu batera edo bestera D gunea bete ohi duten elementuak dira.

## 5. Mendebaleko zenbait egitura eta DSH

Zuazori (1998) jarraituaz, Mendebaleko euskara deitzen den horretan badaude DS egitura bi dialektologia ikerlanetan aipatu arren euskara batuaren gramatika lanetan gutxitan aipatu izan direnak. Hona hemen:

- (68) a. Hau neska gazteau lehendik bere ezagutzen neban  
b. Hónek neska gazteok lehendik bere ezagutzen nituen  
c. Amurizak Bilbon kantau zituen hárek bertso samurrak barrero entzun ditut gaur radixuan
- (69) a. Gu euskaldunok burugogorrek ei gara  
b. zu gizon txotxoloori

Lehen egitura motan, DSren hasieran erakuslea kokatzen da, eta DSren amaieran egoera bi bereizi behar dira: (a) erakuslea bera agertuko da (artikulu gisa irudikatuta eskuarki)<sup>42</sup>, sintagma singularra denean; edo (b) artikulutzat jotzen diren *-ok* eta *-ak* aurkituko ditugu, sintagma plurala denean. Bigarren egitura motan, berriz, pertsona-izenordain (normalean plural) dena DSren hasieran kokatzen da eta, harekin komuntadura eginez, DS amaieran artikulua (hurbila normalean) aurkitzen dugu.

Egitura bi hauei *Determinatzaile Bikoitzeko Sintagma* (=DBS) esango diet, eta azterbide oso bat eskaintzeko asmorik ez badut ere, egiturok DSaren ikuspegitik hobeto ulertzen lagunduko diguten hainbat ohar egin nahi ditut.

Hasteko, ez dago argi egiturok aposiziotzat jo behar ditugun. Aposizio izatekotan, aposizio ez-murrizgarriak izango lirakeke, hor ezbaian dauden pertsona-izenordainek eta erakusleek, beren balio presuposizional eta deiktikoa dela-eta, murriztapen beharrik ez dutelako. Baina behin egiturok aposizio ez-murrizgarriekin alderatuz gero, konturatzen gara berauek ez bezalako ezaugarriak dituztela:

1. Aposizio ez-murrizgarrietan eten garbia omen dago aposizioko sintagma bien artean, baina ez da holakorik determinatzaile bikoitzeko DS hauetan:

- (70) a. Axularrek / Otsondo inguruan sortu zen nafar finak / oso gauza ederrak idatzi zituen (EGLA: 184)  
b. Hau neska gazteau lehendik bere ezagutzen neban

Egia da (70b)-n aukera dagoela DS hori “hau / neska gazteau” bihurtzeko, baina ez da hori nahitaezkoa, eta are gutxiago ohikoa, (70a)-n den bezala. Fonologiaren aldetik, bada, bereizi egin behar ditugu egitura biak.

42. Hizkera batzuetan, artikulua arrunta agertuko da amaieran:

(i) Hau neska gaztea

2. Zati-galdera baten *erantzun laburra* diren aposizio ez-murrizgarrietan, ez da eten handirik egiten aposizioko sintagmen artean, eta aposizioko bigarren sintagmak hartu ohi du deklinabideko kasu-marka edo posposizioa; baina determinatzaile bikoitzeko DSetan kasu-marka edo posposizioa determinatzaile bietan errepikatzen da:

- (71) Nork esan du hori?  
 a. \* Jonek nire lagunak / Horrek neska gazteorrek  
 b. \* Jonek nire laguna / \* Horrek neskaori  
 c. Jon nire lagunak / \* Hori neska gazteorrek
- (72) Norekin zaude geldituta?  
 a. \* Jonekin zure lagunarekin / Horrekin neskaorrek  
 b. \* Jonekin zure laguna / \* Horrekin neskaori  
 c. Jon zure lagunarekin / \* Hori neskaorrek

Orobat gertatzen da DBS egiturotan pertsona-izenordainak direnean lehen determinatzailea; egia da, hala ere, pluraleko formetan (pertsona-izenordain zein erakusle) hitzun askok onartu egiten dutela bigarren determinatzaileak deklinabide atzizkia izatea, lehenak hartu ez arren:

- (73) Norekin daude haserretuta?  
 a. Gurekin gizonezkookin / zurekin langile gizajoorrek  
 b. \*Gurekin gizonezkook / \* zurekin langile gizajoori  
 c. (?) Gu gizonezkookin / \* Zu langile gizajoorrek  
 cf. (?) Hónek gizonezkookin

Bistan denez, determinatzaile bikoitzek komunztadura antzeko zerbait dute euren artean eta biek agertu behar dute kasu-marka eta posposizio berdinekin, eskuarki behintzat, baina ez da hori aposizio ez-murrizgarrien jokabide orokorra<sup>43</sup>.


Beraz, badirudi aposizio hutsaren analisia baztertu behar dugula. Orain: determinatzaile bikoitzeko DSak aposizio-egiturak ez badira, zer dira? Giltza aurreko paragrafoan bilatu behar: *komunztadura* antzeko zerbait dute determinatzaile biek, numeroari dagokionez eta pertsonari edo hurbiltasunari dagokionez<sup>44</sup>:

- |      |        |              |      |         |
|------|--------|--------------|------|---------|
| (74) | hau    | —> -au / -a  | ni   | —> -au  |
|      | hori   | —> -ori / -a | hi   | —> -ori |
|      | ha     | —> -a        | zu   | —> -ori |
|      | hónek  | —> -ok       | gu   | —> -ok  |
|      | hórrek | —> -ok       | zuek | —> -ok  |
|      | hárek  | —> -ak       |      |         |

43. EGLAren arabera, «etena handia denean eta egiazki aposizio ez-murrizgarria denean» (184 orr.), kasu marka bi sintagmei eransten zaie. Arazoa da bi ezaugarriok kontraesanean daudela DBS egiturotan, hain zuzen ere *eten handirik ez dagoelako*. Eta etenik ez duten baina aposizio ei direnek (= (71-72)-koak), berriz, ezin dute errepikatu kasu marka edo posposizioa. Batera edo bestera, ezin esan DBSak aposizio argiak direnik.

44. Berriro ere, erakusleak eta pertsona-izenordainak aurkitzen ditugu bateratsu jokatzeko; ezin uka kategorio berekoak izateko argudio sendoak badaudena.

*Hatsarreak eta Parametroak* ikermoldearen barruan komunztadura erlazioen berezko adierazpidea sintagma baten burua eta haren espezifikatzailearen arteko harremana da. Hau onartzen badugu, logikoena honelako egitura baten pentsatzea izango litzateke:



Hainbat balizko eragozpen alde batera utziko ditut<sup>45</sup>, baina, oro har, egitura hauen azterbideak ildo honetatik jo behar lukeela iruditzen zait. Perpaus erlatiboetarako dagokienez, ez dut arazorik ikusten berauek DS islapen nagusiari atxikitzen zaizkion adjunktutat jotzen baditugu. Espero bezala, posible dira determinatzaile bikoitzekin DS osoaren aurreko hurrenkera kanonikoan:

- (76) a. Gaur goizean ezagutu dudan [hau neska gazte]   
 b. \* Hau gaur goizean ezagutu dudan neska gazte<sup>46</sup>

Azterkizun geratzen dira, jakina, hainbat alderdi: zein dira egitura bikoiztu hauen murriztapenak? (hots: zergatik ezin da esan “\*mutil hau gizajoau?”); zerk egiten du zilegi egitura bikoiztu hau?; erabiltzen den hizkeretan noiz erabiltzen da egitura bikoiztua eta noiz bikoiztu gabea eta zein da bien arteko aldea?. Behin betiko azterbidea edozein izanda ere, nekez eman ahalko dugu egitura hauen berri erakuslea sintagmaren ardaztat jotzen ez badugu, alegia DSH bera zuzena dela onartzen ez badugu. Hortaz, mendebaleko determinatzaile bikoitz hauek, osteria ere, DSHren alde egingo lukete.

## 6. Amaiera: DSH eta euskarazko izen-sintagmaren azterketaren erronkak

Artikulu honen hasierako helburua xumea zen: Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia azaldu eta euskarari dagokionez zertan den erakustea. Helburu hori betetzeko eta DSHren zuzentasuna erakusteko, hainbat egitura eta kontu ezagun erabili ditugu hizpide: euskal izen-sintagmaren ohiko analisiaren desegokitasuna, determinatzaile moten banaketa, determinatzailearen tasunen azalpena, artikuludun predikatuen garrantzia, pertsona-izenordainen jokabide gramatikala, berauek izen bereziekiko dituzten desberdintasunak, mendebaleko determinatzaile bikoitzeko sintagmen garrantzia, eta abar. Artikuluaren amaieran, irakurleak DSH argiago ulertzen badu, Determinatzailea bezalako funtzio-buruak gramatikaren eraketan duen garrantziaz hobeto ohartzen bada, eta euskal gramatika hobeto ulertzen duela iruditzen bazaio, neure helburua betetzat jo nezake.

45. Posesiboekiko arazoak, Kayneren (1994) proposamenarekiko kontsiderazio sakon eta orokorrak azaltzen gabe.

46. (76b) ez da nahastu behar benetako aposizioarekin, hots:   
 i. Hau / gaur goizean ezagutu dudan neska gazte hau / ...

Erronkak, dena dela, handiak dira: deskribapen mailan baino ez bada ere, falta dugu oraindik izen-sintagma barruko zenbatzaile mota guztien eta adjektiboen azterketa; falta dugu, halaber, numero tasunaren ulertze sakonagoa. Hauek erdietsitakoan eta fonologia arazoei kasu gehiago egiten diegunean, hasi ahalko gara, Chomskyk berriki bultzatu duen Egitasmo Minimalistaren barruan, ur sakonagoetan murgiltzen: ba al dago euskaraz D eta I (eta Zenbatzaile) kategoriez aparte beste kategoriarik izen-sintagmaren barruan (cf. Longobardi (1996) eta Ritter (1991))? Bideragarria da Kayneren proposamena euskal gramatikan? Nola jabetzen da haur euskalduna hain erraz hain korapilotsua dirudien izen-sintagmaren egituraz?

Bitartean, beude hemengo ideiak eta argudioak datozen lan horien aurreragarri.

## Bibliografia

- Abney, S., (1987): *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*, MITko doktorego tesia.
- Amundarain, I., (1997): *Juntadura eta Elipsia Euskaraz*, EHU-UPVko doktorego tesia.
- Anderson, M., (1983): "Prenominal Genitive NPs", *Linguistic Review* 3, 1-24.
- Artiagoitia, X., (1997a): "DP predicates in Basque", in A. Taff (arg) *University of Washington Working Papers in Linguistics. Volume 15*, 161-198.
- , (1997b): "Basque DP Predicates Support the DP hypothesis", EHU-UPVko eskuizkribua.
- Borsley, R., (1997): "Relative Clauses and the Theory of Phrase Structure", *Linguistic Inquiry* 28.4, 629-647.
- Brame, M., (1982): "The head selector theory of lexical specifications and non-existence of coarse categories", *Linguistic Analysis* 10, 321-325.
- Chomsky, N., (1986): *Barriers*, MIT Press, Cambridge MA.
- , (1993): "A Minimalist Program for Linguistic Theory", in K. Hale and S. Keyser (arg), *The View from Building 20*, MIT Press, Cambridge MA, 1-52.
- , (1994): *Bare Phrase Structure*, MIT Occasional Papers in Linguistics, MITWPL, Cambridge MA.
- , (1995): *The Minimalist Program*, MIT Press, Cambridge MA.
- Eguzkitza, A., (1991): "KO eta EN postposizioak", in *Euskal Sintaxiaz*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 29-40.
- , (1993): "Adnominals in the Grammar of Basque", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg), *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam, 163-187.
- Emonds, J., (1985): *A Unified Theory of Syntactic Categories*, Foris, Dordrecht.
- Euskaltzaindia (1993): *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (1994): *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-IV (Juntagailuak)* Euskaltzaindia, Bilbo.
- Fukui, N. & M. Speas (1986): "Specifiers and Projections", in N. Fukui, T. T. Rapoport, and E. Sagey (arg), *Papers in Theoretical Linguistics*, MIT Working Papers in Linguistics, volume 8, 128-172.
- Goenaga, P., (1980): *Gramatika Bideetan*, 2. argitalpena, Erein, Donostia.
- , (1991): "Izen sintagmaren egituraz", in J. Lakarra (arg), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, EHU-UPV, Donostia, 847-865.
- Grimshaw, J., (1990): *Argument Structure*, MIT Press, Cambridge MA.
- Jackendoff, R., (1977): *X' Syntax: A Study of Phrase Structure*, MIT Press, Cambridge MA.
- Kayne, R., (1994): *The Antisymmetry of Syntax*, MIT Press, Cambridge MA.

- Laka, I., (1993): "Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative", in J. Bobaljik eta C. Phillips (arg), *Papers on Case & Agreement I*, MIT Working Papers in Linguistics, Volume 18, Cambridge MA, 149-172.
- , (1995): *A Brief Grammar of Euskara, The Basque Language*, Interneten eskuragarri: [www.ehu.es/grammar](http://www.ehu.es/grammar).
- Longobardi, G., (1994): "Reference and Proper Names: A Theory of N-Movement in Syntax and Logical Form", *Linguist Inquiry* 25.4, 609-665.
- , (1996): "The Syntax of N-Raising: A Minimalist Theory", in *OTS Working Papers*, Utrecht: Research Institute for Language and Speech, 1-51.
- Lorenzo, G. eta V. M. Longa (1996): *Introducción a la sintaxis generativa*, Alianza Universidad, Madrid.
- Mitxelena, K., (1988): *Euskal Idazlan Guztiak I. Bertso Berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz.
- Postal, P., (1969): "On So-Called 'Pronouns' in English", in D. Reibel and S. Schane (arg) *Modern studies in English: Readings in Transformational Grammar*, Prentice Hall, New York, 201-224.
- Radford, A., (1988): *Transformational Grammar*, Cambridge University Press, Cambridge UK.
- Rijk, R., de (1972): *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MIT doktorego tesia.
- , (1981): "Euskal Morfologiaren Zenbait Gorabehera", in *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, Bilbao, 83-101.
- , (1988): "Basque Syntax and Universal Grammar", *Euskara Biltzarra. II Euskal Mundu-Biltzarra*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 69-88.
- , (1993): "Basque hospitality and the suffix *ko*", in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg), *Generative Studies in Basque Linguistics*, John Benjamins, Amsterdam, 145-162.
- Ritter, E., (1991): "Two Functional Categories in Noun Phrases: Evidence from Modern Hebrew", in S. Rothstein (arg), *Syntax and Semantics 26*, Academic Press, San Diego, 37-62.
- Stowell, T., (1981): *Origins of Phrase Structure*, MITko doktorego tesia.
- , (1989): "Subjects, Specifiers, and X-bar Theory", in M. Baltin and A. Kroch (arg) *Alternative Conceptions of Phrase Structure*, Chicago University Press, Chicago, 232-262.
- , (1991): "Determiners in NP and DP", in K. Leffel and D. Bouchard (arg), *Views on Phrase Structure*, Kluwer Academic Publishers, Dordrecht, 37-56.
- Szabolcsi, A., (1987): "Functional Categories in the Noun Phrase", in I. Kenesei (arg), *Approaches to Hungarian Vol 2*, JATE, 167-190.
- Trask, R. L. (1983): "Euskal Izen Sintagmaren Egituraz", in *Piarres Lafitteri omenaldia. Iker-2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 599-611.
- , (1985): "-ko atzizkia euskaraz", *Euskera* XXX-1, 165-173.
- Zuazo, K., (1998): "Euskalkiak gaur", *Fontes Linguae Vasconum* 78, 191-233.